

10.000.000,01 €-tik 50.000.000,00 €-ra	1,32
50.000.000,01 €-tik 100.000.000,00 €-ra	1,33
100.000.000,00 €-tik aurrera	1,35
Negoio-zifra garbirik gabe	1,31

1.c. - ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa oinarri ezargarriaren ehuneko %5ekoa da, eta autolikidazio modura kudeatuko da.

Gutxiengo oinarri ezargarriak:

1.-Orokorra: 3.000,00.- euro.

2.-Berezia-moduluak: Obra mota batzuei gutxiengo berezi bat ezarriko zaie:

2.a.-Bainu gelatako obrak: 1.500,00.- euro.

2.b.-Sukaldetako obrak: 4.500,00.- euro.

2.c.-Leihotako obrak: 3.000,00.- euro.

Gutxiengo hauekin desadostasunik balego, udal obra ikuskariak txosten bat egingo du obra ikusi ondoren eta bertan zehaztutako zenbatekoa hartuko da behin betiko oinarri ezargarritzat.

Salbuespena: Fatxada margotzeko lanak eta margotu aurretik egin beharrekoak (zarpeatu, lijatu eta abar).

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren hobariak:

1.-Babes Ofizialeko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean: %50eko hobaria, 24.000€ azpitiko sarrerak dituztenentzat mugatuta. Hobari honen iraupena 3 urtekoa izango da, lehen erabilpen baimena eman den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.-Birgaitasun obren gaineko:

2.a.-Irisgarritasun baldintzak hobetzen dituztenak : %90eko hobaria.

Irisgarritasun baldintzak hobetzen dituzten obren artean mota bat igogailua ezartzea edo egokitzearena da. Kasu honetan hobaria ezartzeko ondorengo puntuetako bat bete behar da:

1.-Igogailurik ez duten eraikinetan, igogailua ezartzeko lanak egitea.

2.-Igogailua duten eraikinetan, igogailua irisgarritasunari buruzko 20/1997 Legea eta hari lotutako irisgarritasunerako arau teknikoetara egokitze lanak egitea.

Gainontzeko kasuetan, hobaria izango du elementu amankomunean irisgarritasun baldintzak hobetzera bideratuta dauden obren oinarri ezargarriaren zatiak, honako kasuetan:

a.- Elementu amankomuneko obra guztietan.

- b.- Elementu pribatiboko obretan, beti ere, obraren titularra Oñatin erroldatua egoteaz gain, 70 urte edo gehiagoko adina baldin badu edo/eta %33ko ezgaitasun-maila aitortua edo handiagoa baldin badu.

3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzeko obren tipologia eta ezarri beharreko hobaria honakoa izango da:

A) Zirkunstantzia sozialak

I. Etxebizitza edo merkatal lokal hutsten okupazioa emateagatik

- i. %90eko hobaria inor erroldaturik gabeko baserri bat eraberritzeko lanak honako baldintzapean: obra bukatzen denetik urte beteko epean norbait erroldatzera konprometitzen bada zinpeko idatzi baten bidez, eta ondorengo 4 urteetan, gutxienez, erroldatze hori mantentzen bada.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoak Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- ii. %50eko hobaria: Baserri batean bigarren etxebizitza egiteagatik, honako baldintzapean: Obra bukatzen denetik urte beteko epean bigarren etxe bizitzan norbait erroldatzera konprometitzen bada zinpeko idatzi baten bidez, eta ondorengo 4 urteetan erroldatze hori mantentzen bada.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoak Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- iii. Merkatal lokalak etxebizitza gisa gaitzeko obrak, gutxitu fisikoak bertan bizitzeko baldintzak betez egiten badira, %50eko hobaria izango da.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoak Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- iv. EITak behartutako obretan energia-eraginkortasuna, bizigarritasuna eta irisgarritasuna hobetzera zuzendutako obrak badira, %95eko hobaria.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoak Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- v. Gune historikoko fatxaden eraberritzea. Bi kasu:

- %75eko hobaria, fatxada guztiak eraberritzerakoan.
- %50eko hobaria, fatxada bat eraberritzerakoan.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoak Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- vi. Leihoak aldatzerakoan %25eko hobaria.

Obra baimentzen duen Alkate-Dekretua beharko da interes bereziko edo udal onurako izendatzeko.

vii. Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea sustatzea: Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren (JEZ) lehenengo ataleko multzo, talde edo epigrafe hauetakoren batean sailkatutako jarduerak eraikitzean edo birgaitzean %75eko hobaria:

- 64. multzoa. Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza establezimendu finkoetan. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: 647.3 eta 647.4 epigrafeak.
- 65. multzoa. Elikagaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako salmenta, establezimendu finkoetan. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: 652.1 epigrafea eta 654 eta 655 taldeak.
- 662. Taldea. Txikizkako salmenta mistoa edo integratua.
- 67. multzoa: Elikagaien zerbitzuak
- 97. Multzoa. Zerbitzu pertsonalak. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen da 979.1 epigrafea.

Obra baimentzen duen Alkate-Dekretua beharko da interes bereziko edo udal onurako izendatzeko.

II. EAEko 2015-2020 Landa Garapen Programaren lehentasunezko foku arlo bat izanda landa-inguruneetan, gizarteratzea, pobrezia murriztea eta garapen ekonomikoa sustatzea, baserri zein nekazal ustiategieetan egiten diren obrak honako kasuetan:

i. Nekazal ustiategien titularrek baserrietan edo nekazal ustiategietan egindako obrek %90eko hobaria, honako baldintzapean:

1.-Nekazal ustiategiari lotutako obrak (ukuiluak, txabolak...) hobaritzeko: eskatzailea nekazal ustiategiaren titularra izan beharko da.

2.-Baserriko obrak hobaritzeko honako bi baldintzak bete beharko dira:

2.1.-Eskatzailea nekazal ustiategiaren titularra izatea.

2.2.-Eskaera-datan honakoa betetzea:

1.-Norbait baserrian erroldatuta egotea.

2.-Udaletik erabil baimena jaso ondoren, gutxienez 4 urtez erroldatuta jarraitzea baserrian. Baserria berria egin nahi denean edo erabil ezina (hirigintza zerbitzuen txostena) izanik, birgaitu nahi denean denean, 2.2.1 puntuko baldintza ez da bete beharko, baina norbait erroldatu beharko da bertan 6 hilabetekoa epean, Udalak erabilpen baimena ematen dionetik kontatzen hasita eta, gutxienez, ondorengo 4 urtetan erroldatuta jarraitu beharko du.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- ii. %25eko hobaria: Gainontzeko lanak baserrietan, ustiategiarekin edo gabe. Baldintzak:

1.-Baserriaren titularra izatea.

2.-Obra bukatzen denetik urte beteko epean norbait erroldatzera konprometitzen bada zinpeko idatzi baten bidez, eta ondorengo 4 urteetan erroldatze hori mantentzen bada.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- III. Gazteria sailaren politikak sustatzeko lanak izateagatik.

- i. %90eko hobaria: Gazte-lokalak ordenantza berrira egokitzeko lanengatik.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Gazteria teknikariak egingo du.

- IV. *Gizarte Zerbitzuetako Udal politikarekin bat egiten duelako*

- i. DBE kobratzen dutenak % 90ko hobaria izango dute.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egingo du.

- V. *Hezkuntza saileko politikak*

- i. Itundutako hezkuntzako ikastetxeetako obrak (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Kontseilariaren Agindua): %95.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Hezkuntzako teknikariak egingo du.

- VI. Tokiko merkataritza sustatzeko:

- i. Tokiko merkataritzako negozio berriak eraikitzean edo birgaitzean: %75.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Sozioekonomiako teknikariak egingo du.

B) Zirkunstantzia kulturalak edo historiko-artitiskoak

- i. %90eko hobaria Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean, babes bereziko moduan adierazitako baserrietan eginiko obrak, beti ere, nekazal jardueratik kanpoko jarduerarik ematen ez bada.

- ii. Elementu berezien zaharberritzea: %95.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- 4.- Eguzki-indarra autokontsumorako aprobetxatzeko sisteman egiten diren obrak: %95

Hobarien ohar orokorra:

Enpresa sustatzaileek, gero saldu edo alokatu ahal izateko egiten dituzten birgaikuntza obrak hobari eskubidetik kanpo gelditzen dira.

Hobari desberdinak ez dira metatuko eta beti hobari handiena ezarriko da.